

2022KO ORDAINSARI-IGOEREI BURUZKO INFORMAZIO **ZIRKULARRA**

Joan den 2021eko abenduaren 29an, **Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea** argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluaren, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

“(...) Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzintasunari dagokionez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2021ekoen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzeari helburu dutenak.”

Aurrekoa ikusita, 22/2021 Legea indarrean sartu ondoren, eta EUDELek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokionez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzen da euskal udalei honakoa gomendatzea:

GOMENDIOA

22/2021 Legearen 19 Bi artikuluaren edukiari dagokionez, EUDELek gomendatzen du sektore publikoko **langileen ordainsariak handitzea**, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, **legez onartutako gehienekoa**, hau da, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko **%2**, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzintasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.

Gomendio honen bidez, EUDELek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berria lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELek berretsi du garrantzitsua dela “UDALHITZ 2008-2010 Akordioa” bere horretan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean datzalako berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio duelako. Ildo horretan, egungo UDALHITZ 2008-2010 araua betetzean egon daitezkeen hutsuneak konpontzeko tresna, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako jarraipen-mahaiak izan beharko litzateke. Gogorarazten dizuegu UDALHITZ 2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen ez-betetze puntualak zuzentzeko akordioak erraztera mugatzen dela mahai horien xedea, eta kanpoko gaiak negoziatzeko prozesurik ez irekitzeko gomendatzen da, EUDELen eta sindikatuen UDALHITZ Negoziazio Orokorreko Mahaian baitago aplikazio-eremua.